

Ahots gozoaren indarra

IZAROREN KONTZERTUA

Izarok eta bere bandako kideek irailaren 23an emandako kontzertua, Bilboko Kafe Antzokian. *Om* diskoa aurkezteko birako lehenengoa.



Dabi Piedra



@GALDERPEREZ

Aspaldi ez zela hain urduri egon aitortu zien Izaro Andresek entzuleei, Kafe Antzokian emandako kontzertuan. Ez zen gutxiagorako, izan ere, Mallabiko abeslari gazteak lehenengo diskoa, *Om*, argitaratu berri du eta Bilboko ostiral gau hartan aurkeztu zuen zaleen aurrean. Hala ere, erronkari bikain heldu zion eta kontzertu ederra eskaini zuen, duen ahots indartsu eta era berean gozoaren erregistro guztiak erabilia.

Eskarmentu handiko hiru musikari izan zituen Izarok alboan: Iker Lauroba gitarran eta teklatuetan, Ane Bastida baxuan eta Oriol Flores baterian. *Om* plazaratu arte, mallabiarra bakarlari ibili izan da beti eta bere burua kantautoreen estilotik hurbil kokatzen du, horretarako gaitasuna badu eta. Baina hiru musikarien ekarpenak modu dotorean jantzi zuen emanaldia.

Ilunetan, musikaren laguntzarik gabe eta lasai ekin zion Izarok emanaldiari, *Argia* kantarekin. Pixkanaka, ahotsaren potentzia igotzen hasi zen eta lehenengo

abestia amaitu orduko garbi geratu zen zertarako gauza den. Ahotsaren kolore guztiak landu zituen, pasio biziko kantarearekin. *KoiLarak* ere, barru-barrutik irtendako indarrez biribildu zuen. Izaroren ahotsa aldi berean izan daiteke gozoa eta indartsua, iradokitzailea eta irmoa. Bakarlari handien pare ibili eta gero, ingelesez abestu zuen beste abesti bat, pop-rock estilora gehiago lerratuta eta entzuleek gustura txalotu zuten.

Hiru hizkuntzatan abesten du Izarok eta, hala, espainolezko *La vi*-ren txanda izan zen gero. Berriro doinu motelagoak. Espainiako kantautoreen oihartzuna nabaria izan zen kontzertu osoan, erritmoetan zein hitzetan. Ondoren, gaueko nobedadeetako bat izan zen *Zangalatraba*, ordura arte ez baitzuen inoiz zuzenean jo. Izaroren izena musikaren munduan ezagun egin zuen *Paradise* ere ez zen falta izan errepertorioan. Bidaia batera gonbidatu zituen Izarok entzuleak. Istorio bakarraren parte bali- rra legez harilkatu zituen abesti guztiak,

kanten artean taldekideek errexitatu zituzten pasarte laburrei esker.

Kontzertu atsegina zen, entzuleak pozik baina hotz samar, eta diskoa argitaratzeko crowdfunding-ean lagundu diotenei bihotz formadun gozokiak ere banatu zizkien Izarok. Eta bat-batean, ia ezustean, gauak goia jo zuen, *Tu escala de grises* abestiaren interpretazio zirraragarriarekin. Kanariar Uhartetatik heldutako kantautorea bailitzan, demagun Rosana indarberritu bat, erritmo tropikalen menpe jarri zuen Kafe Antzokia. Ahots jostalari baina sendoz, eztanda egitear den sumendiaren pare agertu zen Izaro. Kanta amaitzeko, lau taldekideek jo zuten perkusioa, entzuleak zoroen pare txaloka eta oihuka jar-tzeraino.

Beharbada egia esan zuen Izarok eta urduri egon zen Bilbon, baina ahotsak, behinik behin, ez zion dardararik egin. Mallabiarrak ahots pribilegiatua duela ezin da ukatu, erakustaldia eman baitzuen Kafe Antzokian. ■